

## Hau lotsa! 2

–Ba, bai, Loretxu, bai! Eskanerrean urdaiazpikoa ikusi zuten, eta polizia nigana etorri zen. Esan zidan ezin nuela urdaiazpikoa sartu, eta bueno, ba, pena, baina bueno... Baina orduan galderak egiten hasi zen: ea nora nindoan, non egin behar nuen lo, nola lortuko nuen dirua... Nik esan nuen hango familia gure laguna zela, baina urduri jarri nintzen, eta, ez dakit zergatik, baina umeak zaindu behar nituela esan nuen. Orduan, poliziak esan zuen hori lana dela, bisa behar dela eta nik ez neukala bisarik. Beraz, Euskal Herrira bueltatu behar izan dut hurrengo hegaldian. Urdaiazpiko madarikatua!